

EMAKUMEON BORROKA LAN **MERKATUAN**

ELA-tik emakume langileok abian ditugun borrokak plazaratu nahiko genituzke IV. Jardunaldi Feministetan.

Egungo borroka

Mende erdi pasa da euskal emakumea lan merkatuan murgildu zenetik, baina eremu horretan ere ,oraindik, ez da lortu gizon—emakumeen arteko berdintasuna. Emakumeen pobrezia tasa da horren erakusle; gizonena baino dezente altuagoa da-eta. Egoera honen atzean emakumeok bizi dugun prekarietatea dago: denboraldi laburretarako lan kontratuak, lanpostu hobeak lortzeko ditugun oztopoak (promoziorako zailtasunak, alegia), lanpostuen balorazioa sexuaren arabera, soldata baxuagoak...Egoera prekario horiek salatzen ari gara ELA-tik. Gure afiliatuek eskatuta eta sindikatutik berdintasuna lortzeko bultzatzen dugun politikari erantzuten, hainbat mobilizaziotan gabilta buru-belarri:

- Erandioko LIDL supermerkatuan jazarpen-sexuala bizi dute langileek supermerkatuko arduradunaren partetik. ELAtik arduradun hori kargutik kentzeko prezio neurriak bultzatzen gabilta.
- Nagusien egoitzetako langileak lan-baldintza duinak eskatzen dabilta Zumarragako Orbegozo, Gasteizko Ariznabarra eta Cortesko egoitzetan, grebak, lanuzteak eta bestelako mobilizazio bidez.
- EAeko telemarketingeko langileak greban daude dituzten kontratu zaborrekin amaitzeko exijituz, eta euren lana behar den bezala balora eskatuz.
- ...

Egoera zaila, emakumeontzat

Adibide batzuk dira horiek, eta jardunaldietan kasu batzuen ezaugarriak ezagutaraziko genituzke. Era berean, kasu horietaz hausnartu eta ondorio nagusi hauek plazaratuko genituzke:

- Lanpostuen balorazioa, postu horiek betetzen duten jundearen sexuaren arabera dela. Eta emakumeek betetzen duten kasuetan, okerrago baloratzen dela.
- Lan merkatuan, emakumeok gizonen menpe segitzen dugula: euren aginduetara.

- Emakumeon lan baldintzak prekarioak direela: lan ordu asko, soldata baxuak, ezegonkortasuna kontratuetan...
- ...

Telemarketing, erakusle garbia

Jardunaldi feministetan, egoera hauek aztertu nahi ditugu: zein faktorek eragiten duten emakumeak egoera prekarioetan lanean egotera eta horren aurrean zein den hartu beharreko bidea. Era berean, egoera hori bizi duen emakume baten hitzak jasoko genituzke; telemarketing-eko emakume batena, alegia. Telemarketing-a sektore feminizatua izanik (langileen %95 emakumea da), aldibide garbia da emakumeok bizi dugun egoera islatzeko. ELA eta LABek deitutako mobilizazioei erantzuten ari dira sektoreko langileak, eta euren egunerokoa azalduko liguke ELAko afiliatu batek.

Konflikto laboralak ezagutzeko beharra

ELAko Generoa Saitetik, bereziko harreta jartzen diogu emakumeok lan munduan bizi dugunari. Eta, uste dugu, Jardunaldi Feministen IV. topaketan, egoera konkretu horri erreparatu behar zaiola. Izan ere, lan baldintzek eragin handia dute, ein handi batean, emakumeon egungo eta etorkizuneko egoera familiar, sozial nahiz politikoan.

Tailerra planteatzeko erari dagokionez, hurbiltasunak eta lekukotasunak berebiziko garrantzia izan behar dutela uste dugu. Horregatik, tailerlean entzule eta partehartzaile izan daitezkeen lagunentzako gertuko adibideak ezagutarazi nahi ditugu. Gertuko gaiak, Hego Euskal Herriko adibideak direlako eta egunerokotasunean bizi diren egoerak izanik, aurentzat identifikagarri izan daitezkeelako.